



Ikastolako haurrak baratzezaintzan. BOB EDME

Lilian Hirigoiien (Miarritze, 1952) eta Mirentxu Ibargarai (Lakarra, 1977) irakasle dira Kanboko Errobi ikastolan. Seaskan berrikiago sartua da Katixa Lizant (Hazparne, 1965), eta Ortzaizekoan ari da. Hiru belaunaldiak bildu ditu 'Hitza' -k pedagogiaren bilakaeraz solastatzeko.

# Itsasontzi bereko komunitatea

## Iñaki Etxeleku Kanbo

**I**kastolak 1969an abiatu zirelarik Ipar Euskal Herrian, lehen helburua argi zuten sortzaileek: euskararen transmititzea, haur euskaldunen egitea, euskal kulturaren errota izango zirenak.

Lilian Hirigoiien lehenbiziko urte haietan hasi zen andereño gisa, eta bilakaera bizi izan du orain arte. «Argi zen orduan denendako haur euskaldunak eta noizbait adultõ euskaldunak, euskal herri euskalduna eta azkarrak eta indartsua egingo zuten jendeak prestatu behar zirela», dio, irriñoa ezpainetan. «Behar genuen euskal gizartea eraiki, eta eskola tresna bat zen, beste batzuen artean». Gero, horren eramateko zer pedagogia erabili, besterik zen. Emeki-emeki barnatuz eta argituz joan da. «Hor ere, niola euskaldun trebe, ausart, sortzaile, ireki eta abarrekoak egin behar baikenituen, behar ziren horren araberrako metodoak», oroitarazi du Hirigoiienek. Haurraren sormena garatuko zuten egoerak bultzatu, ausarta izan zedin mintzatzera utzi, libertatea bultzatu, horiek ziren orduko irakaspenaren erronkak. «Uste dut gure pedagogia zela gizartearentzat genuen utopiaren isla».

Plantan emateko, orduko irakasle batzuk Hego Euskal Herri- rat joaten ziren zenbait hilabete- ko formakuntzen segitzeko. Seaskak berak ere eskaintzen zituen, eta Freinet mugimenduko (Celestin Freinet, 1896-1966, pedagogo frantsesa) jendearekin harremanetan ziren. Esperientziaren bidez ikasten dute haurrek Freinet metodoan; tronpatu behar dute jakintza berria eraikitze- ko; testu libreak badu inportantzia... «Gauzak egituratuak ziren, baina sekulako inportantzia ematen zitzaion askatasunari, eta egia da batzuetan, askatasuna ez baita aski, ukan ditugula behar- bada desbideratze batzuk. Adibidez, irakurketarentzat genuen metodo bakarra metodo globala zen, eta ohartu gara bazituela bere alde on eta txarrak». Ondorioz, esperientziak ekarri ditu aldaketak, haurrari begirako funtsezko printzipioen ez galtzeko arrangurarekin. «Egia da hastapeneko gauza horiek guztiak, normalizatuz joan diren heinean, franko abandonatu ditugula, behar- bada gehiegi. Haur askegiak genituen; koadroa laxoegia zen menturaz batzuetan. Egun, berriz, beti ari gara erraten: 'Gure haurrek autonomia falta dute; so-

bera txintxoak dira!', kasik beste puntara joanak gara, kar-kar».

Belaunaldiak handitzen ikusi ditu geroztik Hirigoiienek, eta hastapeneko asaldurak joan zaizkio ikusiz nolako helduak bilakatuak diren duela 30 urteko haurrak.

Mirentxu Ibargarai uste du hastapeneko helburuak oraino azkar direla ikastoletako pedagogietan. «Haur euskaldunak, euskal kulturaren oinarri sendoak dituztenak formatzea, beti hor da, eta gehiago ere sendi dugu horren beharra. Argi dugu artean, musikan, historian oinarriak behar dituztela ukan kolegiat joateko mementoan». Hizkuntzaren aldetik gorabeherak badirela aitortu du. Klasetik atera eta frantseserik mintzatzeara beti izan dela, baina euskara maila mendratuz joan dela. Horretan ere irakasleek molde onak bilatzen dituzte hizkuntza gaitasunaren mantentzeko klasean eta klasetik kanpoko erabilpenean.

Katixa Lizant ama eskolako ttipiekin ari da lanean, eta ohartua da erdarako joera indartsua dela haurren artean, eta kalitatea apaldu dela. Araberaren lan egiten dute, beraz, euskararen erakusteko eta «halere, 5 urtetara heltzean gehienek euskara menperatzen dute!».

## Denen afera

Andereñoek argi dute ez duela euskarak eskolako hizkuntza gisa agertu behar haurren buruetan. «Gauza franko entseatzen ditugu; erraten dugu behar duela plazer bat izan, alde batetik, ez direla behartu behar. Baina ohartzen gara ez garela heltzen. Batzuetan behar da behartu, baina molde atsegin batez», esplikatu du Ibargarai. «Gure presentziak, helduenak, itzulikatzen ahal du euskararat. Motibazioak, ekintzak, animazioak, euskaraz bizi taldeak ttipidanik, horiek guztiak inportanteak dira, gustua emateko». Lizantek gehitu du munta handia duela burasoen inplikatzeko. Hiztegi ttipiak banatzen zaizkie euskara ez dakitenei, errandil zenbait truka ditzaten haurrekin, haiek ikus dezaten burasoek ere indar egiten dutela.

Ikastoletan egiten dena ere joanago eta gehiago, «zurkaitz» sistema da. «Ikasle handi batek badu bere ardurapean ttipi bat», zehaztu du Lizantek. «Ttipiak handitu, eta haiek dira zurkaitz, eta euskara bultzatzen da anitz. Handia euskaraz mintzo zaio ttipiari, eta horrek badu motibazio hori handi bilakatzeko».

Ikastolaren komunitateak, bu-



«Uste dut gure pedagogia zela gure utopiaren edo genuen gizarte utopikoaren isla»

«Buraso bat parean dudalarik, badaikit zerbait jokatzeko dela eta ene jokamoldea garrantzitsua dela»

Lilian Hirigoién  
Irakaslea



«Argi dugu artean, musikan, historian oinarriak behar dituztela ukan kolegiar joateko mementoan»

«Burasoek proposatzen ahal dituzte gauzak; gero, guk baditugu gure gogoetak, baina gauzak mintzatuak dira»

Mirentxu Ibarra  
Irakaslea



«Erdararat lerratzen badira ere, halere, 5 urtetara heltzean gehienek euskara menperatzen dute»

«Zurkaitz sisteman, ikasle handia euskaraz mintzo zaio ttipiari, eta horrek badu motibazio hori handi bilakatzeko»

Katixa Lizant  
Irakaslea

raso, haur, irakasle, langileek osatzen duten horrek, euskarari begirako xede horren ukaitea beharrezkoa zaio Ibarrairari. «Engaiamendu batzuk hartu behar dira, ez baitugu hauturik azkenean: behartuak gara ikastolako komunitate hori euskaraz bizi dadin». Buraso erdaldunekin beti kilika den gai bat dela onartu du, baina egun burasoei erraten zaie la premiatsua dela.



Ikastolako haurrak klasean irakaslearekin. JAGOBA MANTEROLA

Hirigoiének esplikatu du Miarritzen hasi zenetik hona ikusi duela haurra ikastolan sartzearen askiestea. «Buraso erdaldunen betebeharra zen haurren ikastolan ematea, eta aski zitzairen. 40 urteren buruan ez dut diferentzia handirik ikusten». Gaia funtsezkoa da Hirigoiénentzat. «Hizkuntza arrotza zaie euskara aita-ama anitzi, eta iruditzen zaie ikaragarriko urratsa dela beste hizkuntza batera pasatzea». In-dar horren egitea eskatzean, dena da zer indar eta nola galdegiten zaien.

Afera ez da hizkuntzaren ikas-tea eskatzea, bakoitzaren hautua baita hori, baina bai ikastolaren eremuan euskara dela lehentasun erratea, Ibarraiek dioenez. «Buraso horiek behar dute jakin eta onartu gauza batzuk huts eginen dituztela hizkuntza gabe. Edo beharko dutela itzulpena. Eta hori guk ere euskaldunek argi ukan behar dugu».

Horretarako medioen beharra azpimarratu du Hirigoiének. Bizpahiru urte hauetan, konparazio-ne, ikasturtearen aurkezpen egunean, irakasleak lehen aurkezpena osoki euskaraz egiten du. Burasoak taldeka jartzen dira, eta euskaldun batek itzulpena egiten die. Horiek horrela, ez da aise, ohartzen baitira galderen egiteko mementoan anitz ez direla baitezpada ausartzen. Bizkitartean, ondorio baikorrak agertzen dira,

buraso batzuk euskaldun berri bilakatzen ari baitira.

#### Burasoen lekua

Ikastoletako burasoek elkartaren bizian parte hartzen dute maiz animazioen antolatze-ko. Pedagogiari begirako erabakietan zer heinetaraino sartzen diren galdegiteko mementoan, irakasleek azpimarratu dute harreman hurbila badela, berez burasoak ikastolaren administrazio kontseiluan baitira eta mintzatzeko tokia baita. «Gauzak erraten ahal dira», dio Ibarraiek. «Proposatzen ahal dituzte gauzak; gero guk, irakasle gisa, baditugu gure gogoetak, baina gauzak mintzatuak dira».

Egiturazko ezaugarri horretaz gain, Hirigoiének zehaztu nahi du buraso-irakasle-haur hiruki bat badela eta hiruki horretan badela profesional bat. «Irakasleek uste dugu hiruki harreman horren ar-dura badugula. Baditugu tresnak horretarako; formatuak gara. Buraso bat parean dudalarik, badaikit zerbait jokatzeko dela eta ene jokamoldea garrantzitsua dela. Dena izorratzen ahal dut, edo anitz salbatzen ahal dut». Solasa posible dela eta egiten dela diote hirurek.

Horretarako, lehenago aipatu komunitatearen ideia funtsezkoa zaie, zaindu behar dena. «Elkartasuna lantzen dugu, adibidez, azken urte hauetan: elkartasuna

haurren artean, gure artean, kanpoari buruz, hitzari inportantzia emanez». Haurren artean pizten baita gatazka anitz, haien konponbiderako lan handia egiten dute solasaren bidez. «Usu entzun dugu gure ikastolara jin zen-bait jenderenganik: 'Harrigarri da: borrokarik ez da hemen!' Ikastola anitzetan ardatz bat da».

Elkarbizitza orekatu horren mantentzeko, begi bistakoa zaie ikasle kopuruaren heina. «Bada neurri bat pasatu behar ez dena», dio Hirigoiének. «Egun batez heldu bazara ikastolara eta haur batzuen izenak ezagutzen ez badituzu, erran nahi du zerbait hautsi dela». Azkar sentitzen du buraso-langile-ikasle-irakasleek osatu komunitate horretan itsasontzi berean direlako sentsazioa. «Ikastolako ikasle ttipi batekin

sentitzen dut badugula lotura azkar bat; nonbait berdinak gara. Hori behar da zaindu».

Irakaskuntza metodoen aldetik badira esperimendazio ezberdinek ikastoletan. Ortzaitzen, Montessori metodoa abiatua dute. Horretarako, formakuntza bat egina dute irakasleek. Seaskak proposatzen ditu formakuntzak, baina hiru irakasleek aitortu dute behar litzatekeela formakuntza tresna are azkarrago bat. Azpimarratu dute garai batez aise gehiago trukatzen zituztela esperientziak bata bestearen artean, eta elkar gurutzatze horren beharra sendi dute. Zailtasunak zailtasun, franko baikor dira andereñoak ikastolen «itsasontziak» daraman bidearekin, eta ongi egiteko nahikari handia sendi dute irakasle belaunaldi berriarengandik ere.

Euskararen  
erakunde  
publikoa



Office public de  
la langue basque

EEPk DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA